



## **Fiteroko autokarabanen II. Topaketa**

*(Tximeletako Batzordearen balorazioa)*

“TXIMELETA” turismo autokarabanistaren Nafarroako Elkartetik, hasteko, eskerrak eman nahi dizkiegu Fiteroko Udalarari eta Turismo Bulegoko langileei topaketa hori antolatzeke eman dizkiguten erraztasunengatik, bai eta Tximeletako eta Fiteroko jendearentzat prestatu eta garatutako JARDUNALDI GASTRONOMIKOEN programa onagatik ere.

Eta, nola ez, eskerrak eman nahi dizkiogu Atalaya Kultur Elkarteari topaketan parte hartu genuenoi eskaini ziguten antzerki-bisita bikainean egindako lanagatik. Abade-elizari egin genion bisitaldiko gidariari eskerrak luzatu. Ibilbide bikaina egin ondoren, organoaren akordeekin gozatu genuen, tabletatik egindako aplikazio batek gidatuta. Eta ezin dugu ahaztu Fiteroko Bainuetxeari eskerrak ematea; izan ere, prezio berezietan eskaini zizkigun zerbitzuak, eta astelehenerako egonaldia luzatu ahal izan zutenei instalazioetara bisita gidatua eskaini zigun. Mila esker guztioi.

Tximeletatik balorazio zehatzagoak eginez, deialdiari erantzun zabala eta nahikoa izan zela azpimarratu, 35 autokarabana eta 80 pertsona inguru, eta 25 umeekin 15 famili taldek parte hartu dutela zehaztu ere.

Entrando en valoraciones más concretas desde Tximeleta, resaltar la amplia y suficiente respuesta a la convocatoria, 35 autocaravanas y unas 80 personas, señalando la importante participación de unas 15 parejas con 25 menores. Horrek alaitasunez bete gaitu antolatzaileok.

Eguraldi ona lagun izan genuen, programatutako jarduera guztietan giroa aparta izan zen eta denetara iristeko aukera izan genuen, beno, ia dena. Aipamen berezia egin behar zaie Las Roscas pasealekuari, Fiteroko Balneario bikainaren instalazioak bisitatzeari (eta pertsona batzuek nola erabiltzen dituzten) eta Fiteroko zezen-plazara egindako bisita inprobisatuari. Plaza hartaz gozatu ahal izan genuen batzuk, eta batzuk, gainera, harroputz ederrak egin zizkigun bikote fiterano jator batek.

Garrantzizkoa bezain atsegingarria izan zen Udalak jende gazteari eskainitako jarduerak izan zuten harrera ona (haurrentzako masterchefa, haurren transhumantzia, puzgarriak...). Puntu hori erabakigarria izan daiteke geroko topaketarako, bai deialdi ofizialetarako bai umeekiko familiei zuzenduetarako ere.

Gastronomiari dagokionez, San Antonio jatetxean prestatu ziguten etxeko menu goxoa, Udalak eskainitako txistorrada eta arkume errea dastatzea eta Fiteroko komunitate arabiarrek prestatutako gozoki gozoak baloratu behar dugu, bereziki.

Ezin ahaztu “Barranco” zonaldean eta zerbitzu gunean ACen artean egin genituen bazkari eta afarietako plater partekatuen giro ona eta kalitatea. Gogoan ere, bazkalondoko kantuak, “Tximeletako kantutegia” baliatu eta alaituta. Merezi luke, agian, kantutegiaren bigarren edizioan lan egitea, gure jendearen esperientziaz eta ekarpenaz aberastuta.

Aipamen berezia merezi dute, halaber, bazkide ez den jendearekin (bazkide egin behar den jendearekin) eta AC PASIÓNeko lagun batzuekin (moderatzaileek hain zuzen) izandako harremanek, Asken hauekin duten foroan gure parte-hartze ofiziala normalizatzea adostu genuen.

Amaitzeko, agian Topaketan izena emateko modua birpentsatu beharko genuke, adineko pertsona batzuek zailtasunak baitituzte fitxa bete eta internet edo posta elektronikoko bidez bidaltzeko. Laster konponduko dugu, errazagoa eta pertsonalagoa eginez.